

BAZTANEN TOKIKO MONETA OSAGARRIA EZARTZEKO ESPERIENTZA
PILOTUA DISEINATZEKO AURKEZTUTAKO **ESKAITZA TEKNIKOEN**
BALORAZIO-TXOSTENA

Balorazio tekniko hau "formularik gabe baloratzeko proposamena (B gutunazala) oinarritzat hartuta idatzi da, "BAZTANEN TOKIKO MONETA OSAGARRIA EZARTZEKO ESPERIENTZIA PILOTUA DISEINATZEKO ASISTENTZIA" kontratatzeko.

Ondoren, aurkeztutako bi eskaintza hauek baloratuko dira:

-Marc Badal

-OLATUKOOP

Proposamen teknikoaren balorazioa, gehienez ere 30 punturekin, plegu arautzailearen 12. Puntuan zehaztutako esleipen irizpideen arabera egingen da, honela:

1.-Eskaintza teknikoaren zehaztasun orokorra, argitasuna, kalitatea eta egin beharreko lanaren helburuari egokitzea. **Gehienez, 15 puntu:**

Proposamenaren argitasuna eta zehaztasuna	3 puntu
Jardueren diseinuaren kalitate teknikoa	4 puntu
Irizpide teknikoekiko koherentzia	4 puntu
Helburuekiko koherentzia	4 puntu

2.-Parte hartzeko prozesuari buruzko proposamena. **Gehienez, 15 puntu:**

Proposamenaren metodologia	5 puntu
Proposamenaren egokitasuna helburuekiko	5 puntu
Proposamenaren argitasuna eta zehaztasuna	5 puntu

Aurkeztutako eskaintzen analisisian oinarrituta, puntuazio hau ezarri da:

1.-Eskaintza teknikoaren zehaztasun orokorra, argitasuna, kalitatea eta egin beharreko lanaren helburuari egokitzea. **Gehienez, 15 puntu:**

	Haztapena	Marc Badal	Olatukoop
	Gehienez ere 15	8	12,5
Proposamenaren argitasuna eta zehaztasuna	Gehienez 3	2	3
Jardueren diseinuaren kalitate teknikoa	Gehienez 4	2	3,5
Irizpide teknikoekiko koherentzia	Gehienez 4	2	3
Helburuekiko koherentzia	Gehienez 4	2	3

Olatukoopen eskaintza osatuena eta egituratuena da, eta hizkera argi eta zehatzarekin idatzi da, plegu arautzailearen 34. puntuan ezarritako baldintzan teknikoetara erabat egokituta. Gaia

ongi ezagutzen dute eta proposamenean 2024an burututako kontratuaren ondorioz egindako txosten teknikoari buruzko erreferentziak sartu dituzte, txosten hark mugaz gaindiko moneta soziala ezartzeko helburua zuelarik. Era berea kontratua gauzatzearen eta proiektuaren helburu orokorran zein espezifikoetan jasotako zenbait alderdi garatzearen ondorioz aurkeztuko diren entregagaiak zehazten dira, koherentzia osoz.

Marc Badalen eskaintzari dagokionez, garapen txikiagoa izan du, nahiz eta baldintza-orri arautzailean ezarritako preskripzioen edukira ere egokitzen den. Proposamena helburutik abiatuta artikulatu da, eta bertan zehazten dira lortu nahi diren helburu espezifikoak. Halaber, azken entregagaiei buruzko atalean hiru ekintza nagusiak bereizten dira -esperientzaren diseinua, parte hartzeko plan eta komunikazio-ekintzen memoria.

2.-Parte hartzeko prozesuari eta komunikazio-planari buruzko proposamena. Gehienez, 15 puntu.

	Haztapena	Marc Badal	Olatukoop
	Gehienez ere 15 p.	5	8,5
Proposamenaren metodologia	Gehienez 5 puntu	1,5	3
Proposamenaren egokitasuna, helburuei dagokionez	Gehienez 5 puntu	2	3
Proposamenaren argitasuna eta zehaztasuna	Gehienez 5 puntu	1,5	2,5

Aipatu behar da aurkeztu diren bi proposamenetan atal hau proposamen orokorrean sartu dela eta ez dela bereizi. Logikoa da horrela egin izana; izan ere, preskripzio teknikoen puntuan 5. Ekintzan sartu zen, eta ez zen identifikatu ekintza bereizi gisa.

Halere, Olatukoop-en proposamena osoagoa da, eta garatuagoa dago ikuspegi metodologikotik, eta informazioa zehatza ematen du deituko liratekeen pertsonen edo taldeen profilak identifikatzeko. Bereziki interesgarria da proba pilotua ezartzeko balioko duten komunikazio-euskarri digitalen proposamena. Entregagaien zerrendan berariaz aipatzen dira komunikazio-planaren memoria eta komunikazio-ekintzen memoria.

Marc Badalen proposamenaren kasuan, sozializazio prozesu bat aipatzen da, proposamena ezaguraztatzeko, non aurkezpena, hitzaldiak, kartelak, elkarriketan, e.a. antolatuko diren. Ekintza horiek Baztango hedabideekin komunikazio kanpaina batekin batera egingo litzateke, baina ez da metodologia zehatz baten arabera egituratu.

RESUMEN DE PUNTUACIONES

Puntuación	Marc Badal	Olatukoop
Máximo 30 puntos	13	21

Atal guztien batura honako hau da:

-Olatukoop: **30 puntuetatik 21 puntu**

-Marc Badal: **30 puntuetatik 13 puntu**

Sinadura digitalaren datan

Cederna Garalurreko teknikaria
Izaskun Abril Olaetxea